

ASTEARTEA

2023/11/21

11. urtea, 1.876. zenbakia

107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

«Zama kendu baino gehiago, poz handia hartu dut»

JOKIN ALTUNA
PILOTARIA



Peio Etxeberriaren aurka 22-9 irabazita, laugarren txapela jantzi du amezketarrak Lau eta Erdikoan; lesiotik guztiz osatu arte ez dela kantxaratuko dio // 7



Bi herritar, atzo, Usabal kiroldegiko instalazioetan. ASIER IMAZ

Usabal kiroldegia erabiltzen hasi dira herritarrak

Ia zazpi hilabeteren ostean, atzo zabaldu zituen ateak Usabal kiroldegia; herritarrak eta kirol taldeak hasi dira erabiltzen; igerilekua etzi erabilgarri izatea espero dute arduradunek // 6

zozketa

Atarikideentzat **saski bat** dugu

PETTARRA

Ikaskoliko
Pettarra
saskia

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

INDARKERIAK GABEKO BIZITZAK

AIZTONDOKO MUGIMENDU FEMINISTA

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Zizurkilgo Udala

AZAROAK 22

ZIBER INDARKERIA MATXISTA
Miren Ros hezitzailearekin
Mintzolan, 18:30ean

AZAROAK 25

ELKARRETARATZEA
Oinezkoen zubian, 12:00etan

IRRADAKA
Saski kafetegiaren kanpoan, 12:15ean

EURIA EGINO BALU

INDARKERIAREN AURKAKO URRATSAK
11:45ean Errebote plazan elkartu, eta Joxe Arregi plazara

IRRADAKA
Bertan, 12:15ean

Badator txotxongiloen urteroko hitzordua

41. Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian 20 ikuskizun, tailer bat eta munduko hainbat lekutako ordezkarien hitzaldiak izango dira

Asier Imaz

Azaroaren 25etik abenduaren 3ra Tolosan nazioarteko txotxongilo jaialdia izango da. Aurtengo 41. urteurrena beteko du ekimenak eta egitarau zabala eta askotarikoa antolatu dute, barruko ikuskizunak, kaleko emanaldiak, tailer bat eta hitzaldiekin.

Tolosak 41 urte daramatza txotxongiloekin gozatzeko, eta Titirijai ibilbide luzeko jaialdia da; aurtengo edizioak modu artistiko honen magia Tolosan utziko du beste behin. Eta, horretarako, 20 ikuskizun prestatu dituzte, «horietako asko familiei zuzendua».

Aurtengo egitarauak estatu eta nazioarte mailako txotxongiloen emanaldi sorta zabala eskainiko du, Hegoafrika, Uruguai, Italia, Eslovenia, Portugal edota Frantziako konpainiekin eta estatukoei dagokienez, Galizia, Madril, Andaluzia eta Katalunian ikuskizunak izango dira. Gainera, Euskal Herriko lau konpainia izango dira: Mar Mar Teatro, Bonbon Beltz, Zurrunka eta Anita Maravillas.



Aurtengo Titirijai jaialdiaren aurkezpenako une bat. A. IMAZ

Titirijai ez da barnealdeko emanaldietara mugatuko, izan ere, jaialdiak kaleko emanaldiak ere eskainiko ditu, hala nola, Lleidako Companyiako *Kuntur*, Carlos Lopez konpainiaren *Maleta Magikoen* ikuskizuna edo Guixot de 8 taldearen *Cargot Picado* jokoen instalazioa. Ildo horretan, ekitaldiak txotxongiloen arloan sormena eta berrikuntza sustatzea duela helburu



Nora Ansoarena Irizar tolosarrak egin du aurtengo jaialdiko kartela. A. IMAZ

nabarmendu dute antolatzaileek, baita artistek beren lana publikoarekin partekatzeko espazio bat eskaintzea ere. Horrela, hainbat jarduera eskainiko dituzte, bertaratzen direnek antzerki bisualaren, txotxongiloen eta objektuen aukerak berraurkitzeko aukera paregabea izan dezaten, profesionalentzat zein zaleentzat diseinatuak. Ekimen horien artean Tolosako (Frantzia) Odradek Eskolak emango duen tailerra nabarmentzen da, txotxongilo eta objektuen antzerkiaren barruan dramaturgia bat sortzen irakatsiko duena. Joëlle Noguès-en edo Shaday Larios-en hitzal-

Barruko eta kanpoko emanaldiak izango dira; Euskal Herriko lau talde ariko dira

diak ere eskainiko dira. Modu honetara txotxongiloen munduan murgiltzeko eta forma artistiko horren ulermen sakinagoa lortzeko aukera bikaina izango dira tailerrak.

SARRERAK SALGAI

41. Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko egitarau osoa *Topic.eus* webgunean kontsulta daiteke, eta jaialdiko ikuskizun guztietarako sarrerak salgai daude webgunean nahiz Topic zentrorra bertaratuta. Asteartetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izaten da zabalik, eta asteburuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

EGITARAUA

IKUSKIZUNAK

AZAROAK 25.

11:00 eta 16:00. *La madriguera*

(Farres brothers, Herrialde Katalanak), Topic-en. 4 urtetik aurrera, gaztelaniaz, itzalak.

12:00 eta 17:00. *Gargot Picado* (Guixot de 8, Herrialde Katalanak), Alondegia plaza. Familiarra, hitzik gabe, jokoen instalazioa.

18:00. *Origenes* (Janni Younge Productions and Phakama Dance Theatre, Hegoafrika), Topic-en, 7 urtetik aurrera, gaztelaniazko testu gutxi, hegaxka, itzalak eta objektuak.

20:30. *Ellos y yo o la sensación de que los árboles te miran* (Jordi Font, Herrialde Katalanak), Topic Migel Arretxe aretoa. Helduak, gaztelaniaz, objektuak.

AZAROAK 26.

11:00 eta 16:00. *La madriguera* (Farres brothers, Herrialde

Katalanak), Topic-en. 4 urtetik aurrera, gaztelaniaz, itzalak.

12:00/17:00. *Gargot Picado* (Guixot de 8, Herrialde Katalanak), Alondegia plaza. Familiarra, hitzik gabe, jokoen instalazioa.

20:30. *Ellos y yo o la sensación de que los árboles te miran* (Jordi Font, Herrialde Katalanak), Topic Migel Arretxe aretoa. Helduak, gaztelaniaz, objektuak.

18:30. *Clicc, clac, Mu* (Titirigui, Madril), Topic-en. 4 urtetik gora, gaztelaniaz, buiak.

AZAROAK 27.

10:30 eta 12:30. *Clicc, clac, Mu* (Titirigui, Madril), Topic zentroko aretoa. 4 urtetik gorakoentzat, gaztelaniaz, buiak.

20:00. *Gure xaharrak* (Bonbon beltz, Euskal Herria), Topic-en. Helduak, euskaraz, giza neurriko txotxongiloak.

AZAROAK 28.

20:00. *A barca do inferno* (Nauta, Galizia), Topic-en. Helduak, gaztelera, maskarak.

AZAROAK 29.

10:30 eta 12:30. *Pinocchio* (Maribor, Eslovenia), Topic-en. 5 urtetik aurrera, gaztelera, objektuak.

20:00. *Estacion paraíso* (*La maquina, Granada*) Topic-en. 8 urtetik aurrera, gaztelera, mistoa.

AZAROAK 30.

10:30 eta 12:30. *Estacion paraíso* (*La maquina, Granada*) Topic-en. 8 urtetik aurrera, gaztelera, mistoa.

20:00. *Edgar* (*Saco de huesos, Frantzia*), Topic-en. Gaztelera, haria eta itzalak.

ABENDUAK 1.

10:30 eta 12:30. *Andereño* (Anita maravillas, Euskal Herria),

Topic-en. 7 urtetik aurrera, euskaraz, objektuak.

20:00. *Caterina* (La dona calba, Herrialde Katalanak), Topic-en. Helduak, gaztelera, txotxongiloa soinean.

ABENDUAK 2.

18:30. *Andereño* (Anita maravillas, Euskal Herria), Topic-en. 7 urtetik aurrera, euskaraz, objektuak.

11:00 eta 16:00. *Impossible?* (Frovia, Herrialde Katalanak), Topic-en. 4 urtetik aurrera, gaztelera, papera.

12:45. *Maletas magicas* (Carlos Lopez, Argentina/Euskal Herria), Alondegia plaza. Familiarra, hitzik gabe, haria.

12:00 eta 17:00. *Kuntur* (Titeres de Lleida, Herrialde Katalanak), eguerdian Emeterio Arretetik Alondegira eta arratsaldean Plaza Zaharretik Euskal Herria Plazara. Familiarra, hitzik gabe, txotxongilo erraldoiak.

12:00 eta 17:00. *Baby esferic* (Aboon teatro, Herrialde Katalanak), Leidorren. 6 hilabetetik 3 urtera, hitzik gabe, objektuak.

17:00. *Solita, mi desierto imaginario* (La cantinela, Frantzia), Topic Migel Arretxe aretoa. 5 urtetik aurrera, gaztelaniaz, mistoa.

ABENDUAK 3.

18:30. *Pinocchio* (Maribor, Eslovenia), Topic Migel Arretxe aretoa. 5 urtetik aurrera, gaztelera, objektuak.

12:00. *Maletas magicas* (Carlos Lopez, Argentina/Euskal Herria), Zerkasian. Familia, hitzik gabe, haria.

12:00 eta 17:00. *Baby esferic* (Aboon teatro, Herrialde Katalanak), Leidorren. 6 hilabetetik 3 urtera, hitzik gabe, objektuak.

18:30. *Se vende hermano pequeño* (Titeres de Lleida, Herrialde Katalanak), Topic-en. 2 urtetik aurrera, euskaraz, mahai txotxongiloak.

Musikarien eguna ospatzeko astea antolatu dute

Musika Astea abiatu zuen igandean Adunan Loatzo musika eskolak; ostiralera arte emanaldiak izango dira herriz herri

Erredakzioa Aduna

Santa Zezilia aitzakia hartuz, aurtten Musika Astea antolatu du Loatzo musika eskolak, mankomunitatea osatzen duten zortzi herrietan, «musika lagun izan dezagun». Adunan abiatu zuten ibilbidea igandean Loatzo musika bandaren emanaldiarekin eta atzo saioa izan zuten Alegian. Aste honetan, Iruran, Zizurkilen, Ibarra, Altzon, Villabonan eta Anoetan arituko dira.

«Taldeak, ganbarak eta musika tresna guztiak batera edo bes-

tera doinuak jotzen arituko dira. Tresna eta talde bakoitzaren atzean ikasle gogotsuak daude eta emanaldi hauetan parte hartzeko egin duten lanagatik zoriondu nahi ditugu», esan du Onintza Erkizia musika eskolako ikasketa buruak.

Erkizia aitortu du «ilusio handiz» prestatutako emanaldiak izan direla eta ikasleek haietan gozatzea espero dutela. «Gure eskerrik beroenak zortzi herrietako udal arduradunei eta teknikariei aste honetako melodiak goxatzen laguntzeagatik».

MUSIKA ASTEA

Azaroak 21, asteartea

Irura

18:30. Loatzo musika eskolako talde instrumentalak eta gitarra taldea arituko dira Irurako plazan.

Azaroak 23, osteguna

Zizurkil

18:30. Abesbatza, txistulari taldea eta pandero taldea plazako aterpean.

Altzo

18:30. Batzarremuño aretoan gitarrak taldea eta talde instrumentala.

Villabona

19:00. Berdura plazan tailerretako ikasleen emanaldia eta Anakruxa taldea.

Ibarra

19:30. Plazako aterpean dultzaina taldearen emanaldia eskainiko dute ikasleek.

Azaroak 24, ostirala

Anoeta

18:30. Anoetako Mikelasagasti auditorioan ganbara eta eskusoinu taldea.



Igandean Loatzoko musika bandak kontzertua eskaini zuen Adunan. L. CARRASCO



ATARIA

«Kemen eta adore handia dute ekintzaile sahararrek»

KRISTINA BERASAIN TRISTAN KAZETARIA

'Sahara, herri bat erresistentzian' liburuaren egileak gaur aurkeztuko du lana Tolosako kultur etxeko Topagunean; ondoren Postal Kolekzionistak taldearen saioa izango da

Jon Miranda Tolosa

Harreman jarraitua eta iraunkorra izan du Mendebaldeko Sahararekin Kristina Berasain Tristan (Lizarrak, 1973) kazetariak. 20 urtetan ezagutu eta bizitakoak bildu ditu liburuan eta jendaurrean aurkeztuko ditu Tolosan, gaur, 19:30etik aurrera.

Begirada guztiak Gazan jarrita daude, baina duela hiru urtetik Mendebaldeko Sahara eta Marokoko gerran daude.

Bai. Paralelismo handia dago bi herrien artean, bi herrialde okupatzaile eta kolonizatzaile dira Maroko eta Israel eta bien arteko konplizitatea erabatekoa da. Gaur egun, Marokoko sahararren kontra erabiltzen dituen droneak Israelen egindakoak dira. Mugitzen den guztiaren kontra erabiltzen ditu, igual zaie militarrek edo zibilak diren jomuga. Aurreko astean izan zen azkeneko eraso eta Gazan bezala lurralde liberatuetan ere, bigarren nakba bat gerta-

tzen ari da, bigarren exodo bat. Esaten dutenez, bost mila lagunek ihes egin behar izan dute Tinduferra, 400 familia baino gehiagok.

Uste duzu nazioarteko komunitateak ahaztuta daukalagatazka hau?

Bai, ahanzturara eta axolagabekeriara kondenatu dute gatazka. Nazioartean isiltasun konplize bat dago eta kazetariok autokritika bat egin behar genuke gatazka honi ez diogulako behar bezala erreparatu. Duela hiru urtetik gerran daude eta nahiz eta Marokok onartu nahi ez, hildakoak daude bi aldeetan. Harresiaren bi aldeak pertsonen kontrako minaz josita daude, eta lurralde okupatuetan, berriz, saharar identitatearekin lotura duen guztia debekatu dago. Errepresio bortitza dago han eta tortura endemikoa da. Kemen eta adore handia dute ekintzaile sahararrek.

Espainiako gobernuak orain arte utzikieriaz jokatu du gataz-

ka honekin. Esperantzarik bai gobernu berriarekin?

Itxaropenerako zirrikitu handirik ez dut ikusten. Iaz Pedro Sanchezek egin zuen biraketak agerian uzten du bizi-bizirik jarraitzen duela okupazioarekin eta Madrilgo hiruko akordioarekin hasitako traizioak. SEADeko presidente Brahim Galik dioen bezala, traizio hori zauri berean labana sartzea bezalakoa izan da. Espainian osatze dagoen gobernuan nahiz eta Sumar alderdiak parte hartzen duen, akordio programati-koan ez zaio Saharako gatazkari aipamenik egiten.

Nola egituratu duzu 'Sahara, herri bat erresistentzian'?

Niretzako liburuan jasotako altxorra lekukotasunak dira. 20 urtetan jasotako testigantzen bilduma da. 2015ean bost egunez lurralde okupatuetan egoteko aukera izan nuen eta oso testigantza latzak bildu nituen. Mendebaldeko Saharako historia handi hori, istorio txikiekin harilkatu dut. Ez da historia edo geopolitika liburu huts bat, nahiz eta historia-ri ere erreparatu diodan, saiatu naiz argazki panoramiko bat egiten eta iraganetik gaur arte, gatazka honen gakoak ulertarazten.

Kulturak eta hizkuntzak garrantzia handia duten saharar herrian eta zuk keinu bat egin nahi izan diezu?

Saharako kultura altxor handi bat da. Ahozko tradizioetik datorren kultura da eta sahararrak hizlari apartak dira. Hassania oso hizkuntza erakargarria egiten zait eta saiatu naiz liburuan keinu bat egiten hizkuntzari eta baita kulturari ere.

Zer da 'Sahara kantari' diskoa?

Ekimen hau Mendebaldeko Saharari keinu egiteko beste modu bat izan da, kulturaren ikuspegitik. Disko horrekin herri honen askatasunerako eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Hamabi kantuz osatutako lana da eta 18 artista handik hartu dute parte. Tartean Tolosako Postal Kolekzionistak taldeak. Gainera, musikari guztiak bilduz, kontzertu solidario bat antolatu dugu Donostiako Kursaalaren abenduaren 22an. Bildutako diruarekin Mendebaldeko Saharako ondare kulturala eta historikoa babestea da asmoa. Sarrrak *Kursaal.eus* helbidean eskuratu daitezke.


Noizko hurrengo bidaia Mendebaldeko Saharara?

Momentuz liburuaren ezagutzera emateko Euskal Herrian zehar bidaiatuko dut. Tolosakoarekin batera hitzartuta dauzkagu aurkezpenak beste herrietan ere. Saharara hurrengo bidaia, auskalo, akaso datorren urtean.

BILAKAERAREN IRAKURKETA

Azken 22 urteetan eskualdeko zazpi estazio meteorologikoetan neurtutako tenperatura eta prezipitazio datuak aztertu ditugu; 2013ko uztaila eta azaroa nabarmentzen dira, bero handiengatik eta pilatutako euriagatik

Aldaketa handirik ez, eguraldian



Batatz besteko tenperatura, azken 22 urteetan, eskualdeko estazioetan. EUSKALMET



Urteko prezipitazio pilatua, batez beste, Tolosaldeko estazioetan. EUSKALMET

Erredakzioa

Tolosaldean eguraldiari lotutako hainbat datu hartzen dituzten zazpi estazio meteorologiko daude. Tenperaturari eta prezipitazioari dagokien datuak dira horietako batzuk eta horien lanketa egin du ATARIAK. Aipatu behar da guztia Euskalmetetik jasotako datuetan oinarrituta egin dela eta zenbait hila-beteetako datuak ez direla ageri.

Zazpi estazio horiek eskualdeko sei herritan daude, bakoitza garaiera jakin batean: Alegia estazioa (Alegian), 90 metroko altueran; Ameraun estazioa (Berastegin), 285 metroko altueran; Araxes estazioa (Lizartzan), 141 metroko altueran; Belauntza estazioa (Belauntzan), 105 metroko altueran; Berastegi estazioa (Berastegin), 378 metroko altueran; Bidania estazioa (Bidania-Goiatzen), 592 metroko altueran; eta Zizurkil estazioa (Zizurkilen), 149 metroko altueran.

ZIZURKIL BEROENA, BELAUNTZA HOTZENA

Altuerak tenperaturaren zerikusia duela uste den arren, ez da beti

horrela izaten. Estazio bakoitzaren kokalekuak eta bertako klimak zerikusi handia izaten du. Eskualdeari begiratuta, Alegiak da estaziorik baxuena eta altuena Bidanikoa. Dena den, ez bata eta ez bestea ez dira tenperatura beroenak eta hotzenak ematen dituztenak.

Azken 22 urteetako datuetan argi ikusten da Zizurkilen kokatutako estazioan jaso direla batez besteko tenperatura altuenak, 21 urtetan bera baitago lehen postuan. Urtero, gainera, bi gradu inguruko aldea dago. Falta den urtean, aldiz, 2015ean, Alegiakoak markatu zuen batez bestekorik handiena, 14,89 gradu, Zizurkilen markatutako zifrarik handienak baino 0,17 gradu gehiago. Urte horretako hilabetez hilabetezko batez besteko datuak ikusita, hamabi hilabeteetatik hamaiketan eskualdeko batez bestekoa gainditzen duela ikusten da; batean, abenduan, batez bestekotik behera dago, ia gradu bat.

Beste aldera joanda, berriz, hotzenaren kasuan, Belauntzakoa nabarmendu behar da. Honen datuak 2007tik 2022ra bitartekoak dira eta guztietan du tenperaturarik hotzena. Hurrengoa 487

metro gorago dagoena da, Bidania-Goiatzkoa, nahiz eta urte batzuetan Berastegiko biak ere badauden: Berastegikoa bi urtetan eta Ameraungoa urte bakarrean.

BEREZITASUNIK EZ

Azken 18 urteetako batez besteko tenperatura datuen grafikoa egiten badugu, Zizurkilgo estazioan berezitasun handirik ez dagoela ikusten da. Urtearen erdian, ekainetik urrira, egiten du berorik handiena. Abuztua da historikoki bero handienak jaso dituen hilabetea, nahiz eta uztaileko zenbait egun ere nabarmen-tzekoak izan. 2006ko eta 2013ko uztailetan erregistratu ziren batzatz besteko berorik handienak, 22,2 gradukoak, hain zuzen ere.

Tenperatura baxuenei erreparatuta, otsailean neurtu ziren hilabeterik hotzenak. 2012ko otsaila izan zen Zizurkilgo historiako hotz handiena erregistratu zen hilabetea, 4,4 gradurekin. Ondorengoa, 2005eko otsaila izan zen, 4,8 gradurekin.

Azken hiru urteetako datuetara mugatzen bagara, 2020tik 2022ra, eskualdeko zazpi estazioetako batez besteko tenperaturen ibilbidea oso antzekoa izan da. Hilabetez hilabetezko da-

tuak eta estazioetan jasotako araberako lekuak ere ia berdinak dira. Honekin, gradu batzuetako aldea badago ere, eskualdeko tenperatura antzekoa dela esan daiteke.

EURITSUENA, BERAESTEGI

Eskualdeko 28 herrietatik 6etan ditugu prezipitazioak neurtzen dituzten estazioak eta hauek ematen dituzten datuak kontuan hartuta, ikusten da, eskualdeko herririk euritsuena Berastegi dela. Bertako bi estazioak dira azken 22 urteetan lehen bi postuetan agertzen direnak. Euskalmeten datuen arabera, Ameraunen azken 22 urteetan urtero 2.000 litro metro karratuko jaso dira; eta Berastegi estazioan urtero 1.800 litro metro karratuko jaso dira.

2013a izan zen euri gehien bota zuen urtea, zehazki esateko, urte horretako azaroa. Orduan, Bidaniko estazioan pilatu zen euri kopuru handiena, 568 litro metro karratuko; Ameraunen 555 eta Berastegin 535. 2013ko egunak ikusita, berriz, bi hilabeteetan euri egun asko izan zirela ikus daiteke. Maiatzean, 23tik 26ra bitarte, euri egunak izan ziren, eta baita azaroaren 22tik

25era ere. Hala ere, euri kopuruari erreparatuz gero, azaroan euri gehiago egin zuen maiatzean baino.

2022A, GORABEHERATSUA

Datuak aztertuta, urteko hilabeterik euritsuenak urtarrila eta azaroa direla ikusten da. Hala ere, badira aipatzeko bi urte berezi ere: batetik, 2007. urtean martxoa izan zen hilabeterik euritsuena, guztira 496,3 litro metro karratuko jaso ziren, eta abuztuaren 315,6. Azken hori da azken 20 urteetako abuzturik euritsuena. Bestetik, lau urtetan, 2013, 2015, 2016 eta 2018an, otsailean ere euri asko egin zuen; azken hiru urte horietan gainera, urteko hilabeterik euritsuenak izan ziren.

Ameraun estazioko azken 20 urteetako datuak eskualdekoe-kin konparatuta, urtez urteko hilabeteetako kopuruak ibilbide berdina egiten duela ikusten da. Hala ere, 2022arekin bi horiek konparatuta, urte gorabeheratsua izan zela ikus daiteke. Otsailean, maiatzean, uztailean, urrian eta abenduan batez bestekotik behetik dago, eta aldiz, martxoan, apirilean, abuztuaren eta irailean goitik.

Tolosaldeko tenperatura eta prezipitazioa 2002-2022.

Lanketa bereziak eta grafiko guztiak, hemen:



ADITUAREN BEGIRADA

«Estazioen kokapen geografikoak ezinbesteko garrantzia du»

IKER IBARLUZEA
METEOROLOGOA

Iker Ibarluzea meteorologo ibartarrak azken 22 urteetako tenperatura eta prezipitazio datuak aztertu ditu; harrituta geratu da, eta kontu handiz aztertu behar direla esan du

Josu Artutxa Dorronsoro

2001az geroztik eskualdean jasotako datuak gorabeherarik gabekoak direla esan du Ibarluzeak. Gure klimatologia aldatzen ari dela nabarmendu du, baina esan du estazio meteorologiko batzuk lekuz aldatu beharko liratekeela. **Zein da, oro har, eskualdeko datuen inguruan egiten duzun irakurketa?** Harrituta geratu naiz, batez besteko tenperaturengatik. Aldaketa klimatikoaren testuinguruan, diskurtsoek adierazten dutena ez da plasmatu Tolosaldeko estazioetako datuetan. 22 urtetan oso zaila da ondorio klimatiko bat izatea, baina azken urteetako joera ikusita, deigarria da tenperatura erregularki mantentzea. Egia da iazko urtea oso beroa izan zela, baina ez da iguera

konstanterik antzematen. Ikusiko dugu datuek zer dioten, baina aurtengo urtea iazkoa baino freskoagoa izaten ari delakoan nago. **Prezipitazioei dagokionez, antzeko kopuruetan ibili gara urte hauetan guztietan. Azken hiru urteetan zertxobait behera egin dute, baina ez nuke esango behe-rakada drastiko bat egon denik. Euri kopuru antzekoa botatzen jarraitzen du, baina egun gutxiagotan. Lehen, urtean zehar egun gehiagotan egiten zuen euria. Orain, bizpahiru hilabete oso euritsu izaten ditugu, eta besteetan prezipitazio txikiagoak. Akaso, gure klimatologia pixka bat eraldatzen ari da; atlantikoa edo ozeanikoa izatetik pixka bat tropikalizatzerara igaro da. **Esaten da azken urteetan bero handiagoa eta euri gutxiago egiten duela.****

Pasa den urteko udara oso berezia izan zen, ia anormala. Oso goiz hasi zen eta ohikoa baino gehiago iraun zuen. Bero bolada batzuk izan ziren eta apenas egin zuen euria. Kontua da aurreko hiru udaratan lainotutako egun asko izan genituela, eguzkirik gabekoak, eta batez bestekotik beherako tenperaturekin. Gure oroimena, eguraldi aldetik, oso mugatua da; uda batean bero handia egiten duenean iruditzen zaigu aurrekoak ere hala izan direla. Euriagatik ez daukagu kezkatzeko motiborik, baina kontzentratuago egiteak alde txarrak ere baditu, batez ere, nekazariarentzat. **Zizurkil enregistratu dira tenperatura altuenak; apalenak, berriz, Belauntzan. Deigarriak egin zaizu?** Estazio meteorologikoen kokapen geografikoak ezinbesteko garrantzia du. Zizurkil itsasotik gertu dago, eta neguan tenperaturak hain hotzak ez izatea dakar horrek. Udaran, baldin eta zein

joera hartzen duen, mendikate nagusietatik behera datorren hego haizearen ondorioz, bero dezente egin dezake, eta tenperatura oso altuak markatu ditzake. Gauez, itsasoa gertu duenez, ez du hainbeste freskatzen. Bestalde, Belauntzako estazioa iparraldera orientatuta dago eta leku oso ospelean. **Bestalde, Berastegi izan da herri euritsuena. Urtero, 2.000 litro metro karratuko jaso dira bertako estazioetan.** Ia 3.000 ere izan ziren 2013an. Hori astakeria bat da. Euskal Herrian euri asko egiteko ipar-mendebaldeko haizea egin behar du, eta hori gertatzen denean, prezipitazioa errazago iristen da ipar-ekialdera. Oso zonalde menditsuak izateak ere eragina du. Berastegi inguruan hasten da Euskal Herriko gune euritsuena, Artikutza, Lesaka eta Bera ingururaino luzatzen dena. **Hala ere, azken 22 urteetako kopuru handiena Bidanian enregistratu zen, 2013ko**

azaroan: 568 litro metro karratuko. Justu, eskualdean mendebale-n dagoen herria da. Hau ere gune menditsua da, eta beraz, ez da harritzekoa euri asko egitea. Hala ere, kontuan hartzeko beste faktore batzuk egongo ziren tarteetan: fronteak, haize mota... **Datuak guztiz fidagarriak izateko, baldintza batzuk bete behar dituzte estazioek, ezta?** Bai, batez ere termometroek. Errepide batetik urrun egon behar dute, distantzia esanguratsu batera. Oso gertu jarritz gero, autok eta asfaltoak igorritako berotasunarekin, neurtutako tenperaturak manipulatzera iritsi daiteke; batzuetan, bi graduren aldea egon daiteke. Bestetik, belar gainean egon behar dute, eguzkitan, metro eta erdiko altueran eta haizeak eman behar dio. Euri-neurgailuek, berriz, euria ondo hartuko duten guneetan egon behar dute. Eskualdeko estazio batzuek ez dituzte baldintza horiek betetzen.



E.M.E.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 DURANGOKO AZOKAKO

2023ko nobedadeen sorta

58. Durangoko Azoka. DA! Abenduaren 6tik 10era. durangokoazoka.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 ALAKRANA DE ECHEBASTAR

Produktu sorta

Erroxape kaia
BERMEO
946 18 65 00
www.alakrana.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **943 09 06 08** telefono zenbakira edo sartu **Ataria.eus** webgunean • Parte hartu aste honetako osteguneko 11:00ak arte. Saridunak asteartean, urriaren 3an, argitaratuko ditugu.

Usabal berriro erabilgarri

Atzo jarri ziren martxan Tolosako udal kiroldegiko espazio lehorrak, eta erabiltzaileak hasi ziren bertara joaten; ostegunean espazio hezeak zabaldua egotea espero dute

Asier Imaz/I. Garcia Landa

Usabal kiroldegia berriro ere erabilgarri dago atzotik. Oraingoz espazio lehorrak erabili daitezke, eta etzi, ostegunean, espazio hezeak ere erabilgarri egotea espero dute. Asier Martin Usabal kiroldegiko zuzendariak azaldu duenez, dagoeneko igerilekuak garbitu eta bete egin dituzte berriro. «Bihar [gaur] laborategikoak etorriko dira uraren analitika egitera, eta ondoren Osasun Sailak baimena emango digu irekitzeko. Dena ondo badoa, espero dugu ostegunean igerilekuak irekita egotea».

Lehen egunean dagoeneko jendea hasi zen Usabal kiroldegira joaten. Lehen orduan, 07:00etarako, jendea bazegoen zain sartzeko. «Egun polita izaten ari da. Bagenuen gogoia hona etorri eta aparkalekua berriro beteta ikusteko eta jendea zain barrura sartzeko», azaldu du Martinek. «Jendea ere etortzen ari da harrerara, batez ere ikastaroei buruz galdetzeko».

Erabiltzaile gehienek ikastaroen inguruko kezkak zituzten. Horrez gain, jendea ere izen ematera joan zen. Orain, ikastaroen martxa egokitzen joango dira. «Maiatzean izena emanda zeuden hainbatek ez dute gaur egun egoera bera ordutegien aldetik. Horiei esan pazientzia izateko. Batez ere igeriketan pare bat aste beharko ditugu dena berantolatzeko», zehaztu du Martinek.

Ikastaroak atzo bertan hasi ziren, eta lehen egunean dagoeneko partaideak ere izan ziren. «Jendea zain zegoen, eta horrela erakutsi du ikastaroetara etorriz», esan du Martinek. Kirol klubak ere atzo bertan hasi ziren Usabalgo kantzak eta espazioak erabiltzen. «Usabalek martxa potoloa zeukan eta berehala hartuko du berriz ere martxa hori. Ohituko gara berriro ere bere osotasunean martxan ikusten. Hau da osasuna, hau da jarduera fisikoa, eta gustura ikusten dugu kiroldegia martxan», esan du zuzendariak.

TAKE saskibalo klubeko kideek zein Tolosa Eskubaloikoei, esaterako, atzo bertan hasi zituz-



Erabiltzaile bat Usabalgo kiroldegira sartzen, atzo eguerdian. A. IMAZ

ten entrenamenduak kantzetan, eta eskubaloikoei eta saskibaloikoei asteburuko etxeko partidak bertan jokatzeko dituzte.

KONPENTSAZIOAK

Ohiko ordutegiarekin jarri da martxan kiroldegia, hau da, 07:00etatik 22:00etara astelehenetik larunbatera, eta 08:00etatik 14:00etara igandeetan.

Bestalde, bazkideen kuoten konpentsazioa nola egingo den azaldu zuen kiroldegia zuzendariak: «Maiatzeko kuota kobratuta zegoela iritsi zen greba, eta, beraz, kiroldegia zorrak ditu. Hortaz, konpentsazioa hil honetan egingo dugu, eta azaroa ez dugu kobratuko. Bestalde, abenduko lehen hamabostaldia ez dugu kobratuko, eta lehenengo kuota abenduaren 17an kobratuko da. Hori horrela, zor ditugun 24 egunak konpentsatuko ditugu».

Ikastaroetan parte hartzen ari zirenei ere konpentsatuko zaiela



Erabiltzaile bat, atzo, Usabal kiroldegian. A. IMAZ

jakinarazi zuen Martinek. «Azaroaren 20tik 2024ko otsailaren 2a arte dohainik izango dira ikastaroak, maiatzean greba hasi zenean gurekin parte hartzen ari ziren guztientzat», azaldu zuen.

Kompentsazio horretan sartzen dira greba mugagabea hasi eta denboraldi amaiera bitarteko zazpi asteak eta martxoan langileek egin zituzten greba egunak. Bestalde, norbaitek ikastaroetan

izena eman nahi badu, ohiko bi-deak irekita daudela jakinarazi zuen zuzendariak.

Bide batez, Martinek dei egin zien erabiltzaileei, «pasa dugun hau guztia pasa eta gero, animatu daitezela berriro Usabalera etorri eta bertan gozatzeko, eta kirola ere berriro bere egunerokotasunean txertatzeko».

ABENDUAREN 7A, LEHIAKETARA AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

Azaroaren 14an Tolosako Udalbatzak ezohiko osoko bilkura egin zuen herriko udal kirol-instalazioen kudeaketaren inguruan, eta BPXport enpresari kontratua etetea erabaki zuen eta lizitazio berria martxan jartzea.

Kirol-instalazioen kudeaketaren kontratua lortzeko lehiaketa abian dago, beraz, eta enpresek abenduaren 7ra arteko epea dute beren eskaintzak egiteko. Ondoren, eskaintza horiek aztertuko dira eta erabaki zein izango den kirol-instalazioak kudeatuko dituen enpresa.

Lizitazio berriaren pleguak publikatu ondoren, aurreko ostegunean, langileek erabaki zuten greba bertan behera uztea, eta ostiralean bertan itzuli ziren lanera. Erabaki horretara nola iritsi ziren azaldu zuten: «Ja zazpi hilabete daramatzagu greban, eta inork ez zekien puntu honetara iritsiko ginenik greba hau hasi genuenean. Langileok 2020tik hitzarmen gabe gaude, eta 2023ko urtarrilean hasi genituen negoziaketak, BPXport sartu eta handik lau hilabetera. Bagenekien negoziaketak ez zirela errazak izango, enpresaren interesak hasieratik berdinak izan direlako: beraien hasierako proposamenari eutsi eta guk esandako proposamen ezberdin guztiei ezezkoa eman».

Langileek euren erabakia hartzeko, Tolosako Udalaren baldintza-agiriak aztertuko nahi zituzten: «Eskertu behar da udalak esku hartu izana eta egoeraren aurrean arduraz jardun izana. Baldintza-agiri berrien azterketa egin ostean, langileok eta ELAk ikusi dugu baietz, gure lan baldintzak duindu eta bermatzeko nahiko baliabide daudela baldintza-agiri berrietan».

«Ez da txapelketa errazena izan, baina begira zer opari egin diodan nire buruari»

JOKIN ALTUNA
LAU ETA ERDIKO TXAPELDUNA

Irujorekin eta Olaizolarekin konparatzen zaionean, ez dela aritzen ariketa horiek egiten dio; hori bai, gaur egun pilotan garrantzitsu sentitzen dela esan du Altuna III.ak

Imanol Garcia Landa
Amezketak

Bere laugarren txapela irabazi du Jokin Altunak (Amezketak, 1996) Lau eta Erdiko Txapelketan, igandean 22-9 irabazita Peio Etxeberriari. Guztira, lehen mailako zazpi irabazi ditu, beste bi buruz burukoan eta bat binaka. Igandeko finalean berriro ere kolpea hartu eta mindu zuen ezkerreko sorbalda.

Nola duzu sorbalda?

Gaur [atzo] minarekin nago; gauean ohean ere minarekin egon nintzen. Banekien berriro kolpe txiki bat hartuz gero, nola esnatuko nintzen. Baina gustura nago, lanak bukatuta, uste baino askoz hobeto gainera. Orain osatzeta tokatzen zait.

Noiz sartuko zara binakakoa?

Ez dakit, baina minik ez izan arte ez naiz kantxan berriro izango. Ez du zentzurik egoera hau luza-tzeak, eta gutxiago nire adinean.

Gustiz osatzerakoan berriro aterako naiz.

Medikuek esan didate garrantzitsua dela ondo sendatzea. Gomendatu didate geratzea, eta errehabilitazio ariketekin eta fisioaren lanarekin sendatuko dela iruditzen zaie. Ez bada horrela sendatzen, hurrengo pausoa plasma tratamendu bat egitea izango litzateke. Azkenean tratamendu hori behar bada, horrek suposatuko luke hilabete eta erdi geldirik egotea; gero entrenatu eta sasoiari jartzeko denbora ere kontuan hartu beharko litzateke. Orain erabaki dugu atsedenarekin eta fisioarekin saiatzea, baina denbora beharko dut horretarako.

Ez dizute denbora zehatzik eman?

Lesioa egin nuenean esan zidaten lau eta sei aste bitartean izango zela. Kontua da txapelketan egon naizela, txapelketa motz batean. Lan handia egin dugu eta finalera iritsi eta egun horre-



I.G.L.

tan izan ditut sentsazio onenak, kolpea hartu arte. Ostiralean egin nuen entrenamendurik aurreko hilabete eta erdian ez dut egin, minik gabe. Horregatik atzo [igandean] oso lasai ateranintzen kantxara, eta kontentutako nago, balio izan didalako irabazteko.

Zein da duzun lesioa zehatzki?

Hasieratik esan zidaten zaintiratu bat edo fisura bat nuela artikulazio batean, eta horrez gain kolpe handia nuen. Binakako txapelketa bat izan bazen geratu egingo nintzen segituan, luzea delako. Lau eta Erdiko Txapelketa izanik, finalerdietan nengoen eta dena eman nahi nuen ondo jartzeko. Zortez ondo jarri nintzen eta finalerdia irabazi nuen, eta ez da txapelketa errazena izan, baina begira zer opari egin diodan nire buruari. Horren atzean lan handia dago eta oso harro nago egindakoarekin.

Nola joan ziren finalaren osteko ospakizunak?

Ikaragarri ondo pasa genuen. Atzo [igandean] ez genuen egin afaria jende guztiarekin. Erabaki nuen nahiago nuela familiare-

kin egon; gero gauean lagunekin egon nintzen. Herrian ongiatorri oso polita egin zidaten, azken garaian egin didaten politeneta-koa, bideo oso polit batekin.

Lau eta Erdian bigarren txapela irabazi zenuenean, inoiz baino txapeldunago sentitzen zinela esan zenuen. Nola sentitzen zara orain?

Gaur ere bai. Orduan ere horrela sentitzen nintzen. Orduan, gainera, gogoan dut oso hilabete gogorretatik gentozela, eta finala baino hilabete lehenago kolpea hartu nuen, eta oso polita izan zen txapelketa hura eta asko eman zidan. Honek ere bai, du-darik gabe. Hurrengo baterako ere balio dizu ikusteko egunero-kotasuna ez dela erraza kirolari batentzat eta zailtasun horiek dituzunean asko balio duela sufritzeak, hortzak estutu eta aurrera egiteak. Horregatik txapel honek balio oso berezia du, baino ez beste batek baino gehiago edo gutxiago. Txapel bakoitza irabaztea ikaragarri zaila da, eta horregatik oso kontentutako nago.

Zamarik kendu duzu txapel hau irabazita?

Zamarik ez dut kendu. Bai nuela gogoan txapela irabazteko, baina lau txapelketa bakarrik zeuden aurrekotik azken hau irabazi bitarte, eta horietan ere gertu ibili naiz txapela irabaztetik. Hori ere gauza ederra da.

Baina lasaitua hartu duzu?

Ez, lasaitua ez, poza latza. Txapelketa bakoitzean hori bera hartzen dut kontuan. Atzo [igandean] finalera aterata banintz pentsatzen aurreko bi finalak galdu egin nituela eta hau irabazi egin behar nuela... Gainera, partidaren hasierak lagundu egin zidan, oso azkarra izan baitzen, eta ez zuen denbora gehiegirik eman buruari bueltak emateko. Peiok ez zuen egunik onena izan, eta markagailuan alde egin nuen. Zama kendu baino gehiago, poz handi bat hartu nuen.

Zure adinarekin beste inork ez ditu zure zenbakiak, ezta Irujok edo Olaizolak ere.

Hori badakit. Konparaketei begira ere ez naiz egoten. Niretzako horiek sekulakoak izan dira; gainera, beraien aurka jokatzeko aukera izan dut, eta pribilegiatu bat sentitzen naiz. Orain 27 urte ditut eta pilotan garrantzitsu sentitzen naiz, gauza handiak egiten ari naizela badakit, baina bihar honetaz ez didazue galdetuko. Binakakoa dator, beste txapelketa bat; erretiratzen garenean begiratuko diogu zenbakiei.

Txapelketa bakoitzean faboritoa zara irabazteko. Nola eramaten duzu hori?

Denborarekin uste dut hobe dela hori asimilatzea, horri bueltak ematen jarraitzea baino. Pentsatu faboritoa zarela eta horrekin jokatu behar duzula, aurkariei errespetu guztia erakutsiz, jakinik faboritoak askotan galdu egiten duela. Nik askotan galdu egin dut, eta irabazi ere bai faboritoa izan ez naizenean. Azkenean kirola horrela da. Kontu horiek hobeto eramaten ditudala uste dut, eta ondo sentitzen naiz.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2023KO AZAROAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoñ, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 21

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. A30eko greba feminista orokorra aztertzeke bilera, udaletxean, 18:00etan.

Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik 10:30ean abiatuta.

Ondoren, hamaiketako.

Irura. Loatzo musika eskolaren musika astea. Talde instrumentalak plazan, 18:30ean.

Larraul. Betzaida Urtzaren eskutik, ipuin kontaketa, liburutegian, 17:30ean.

Lizartza. Podologo zerbitzua, 10:30ean. Txanda hartzeko: 688 86 74 12.

Tolosa. Pornografia gaur egungo sexu-heziketa ote? hitzaldia, Eider Goiburu feminista, psikologo soziala eta sexu-hezitzailearen eskutik, udalbatza aretoan, 18:00etan.

Tolosa. Sahara. Herri bat erresistentzian liburuaren aurkezpena eta solasaldia kultur etxean, 19:30ean. Ondoren, Postal Kolekzionistak taldearen kontzertua, akustikoan.
Zizurkil. Deitorazaitza Tigrisek liburuaztertuko dute, Oihana Iguaranekin. Plazida Otaño liburutegian, 18:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Amasa-Villabona. Zanskar, aztarna berrien bila, Joseba Iztuetaren ikus-entzunezkoa, Gurea antzokian, 20:00etan.
Tolosa. Reflejos de Africa oriental. Kenia 78-Tanzania 82 dokumentalaren proiektzioa, kultur etxean, 20:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena.

10:00. Patxadaz. Elkarriketen tarte.

12:30. Pasahitza. Eskualdeko albisteak.

28 KANALA

10:30. Hara bi.

13:30. Tolosaldea Gertutik.

17:00. Eugeniren txokoa.

20:00. Harri Salda.

21:30. Tolosaldea Gertutik.

22:00. Kontu kontari.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 8. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro makurra.

Egun osoan hodeiek zerua estalirik edukiko dute eta

euri giroa nagusituko da.

Zaparradak egun osoan zehar botako ditu, sarri egingo du eta tarteka mardul botako du, uneren batean ekaitzak jotzea baztertu gabe. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da eta tenperaturak behera egingo du, 9-12 graduan joz goia.



Bihar. Bustitik jarraituko du.

Goizean euria sarri eta mardul egingo du, litro

politik pilatuko direlarik.

Arratsaldean tartekatuago eta ahulago egingo du, baina gauera arte ez du lortuko erabat atertzetik. Ipar-haizea zakar edo oso zakar ibiliko da eta tenperaturak beste pixka bat behera egingo du, 8-11 graduan joz goia. Egunaren bigarren zatian elur-maila 1.000/1.200 metroan kokatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Zaintza izango da lehiaketarako gaia

Datorren urteko Tolosanklisk argazki lehiaketako gaia zehaztu dute; Tolosako 2024ko egutegiak Zerkausion eskuratu ahalko dira



Tolosanklisk argazki lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin dute udaletxean. I.T.

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak prest du 2024 urteko egutegia, eta gaur, bihar eta etzi izango dute herriarrek Zerkausion eskuratzeko aukera.

Ohi bezala, Tolosanklisk argazki lehiaketa baliatu du udalak egutegia hornitzeko. Aurtengo argazkietarako gaia *Tolosa, kultur herria* izan da, eta irabazlea eta ondorioz egutegiko azalaren irudia Arantxa Aranburu Arakamaren *Kultura Saretzen* argazkia izan da. Urteko 12 hilabeteen argazkiak ondorengoak dira: Javier Ortiz Moreno *Isidro Larrañaga Zuzendari Maisua* (urtarrila); Arantxa Aranburu Ara-

kama *Txarangen Igoera* (otsaila); Javier Zabala *Txarangak* (martxoa); Juanan Dorronsoro Ugartemendia *Gure Zirkua* (apirila); Unai Altola-girre Ormazabal *Suaren gainean oihu eta irrintzi* (maiatza); Xabier Liceaga *Txistulariak eta Dantzariak* (ekaina); Joseba Imanol Odriozola *Tolosanblus* (uztaila); Joseba Iturbe *Erraldoiak* (abuztua); Iñaki Otegi Arrospide *Badator Erraldoia* (iraila); Juanma Goñi Sagarzazu *El Pajarillo* (urria); Javier Zabala *Tolosako Abesbatza* (azaroa) eta Miren Liceaga *Santa Ageda Bezpera* (abendua). Irabazleak 600 euroko saria jaso du eta urteko 12

hilabeteen irudien ataleko irabazleek 200 euroko saria.

ZAINTZA

Hurrengo urteko lehiaketarako gaia zaintza izango da. «Ongizatearen erdigunean dago zaintza, bizitzeko oinarritzakoa duguna. Pertsona guztiok jasotzen ditugu mota bateko edo beste zaintzak, jaiotzen garenetik; eta guztiok eskaintzen dugu zaintza uneren batean. Mugimendu Feministaren aldarrikapenekin bat eginez, zaintza lan profesional zein ez-profesionalak balioan jarri nahi ditu udalak», nabarmendu du Kultura eta Berdintasun zinegotzi Goiuri Ezeizak.

